



## *Ormaiztegui Udala*

Udal1-batzarre  
E-19.08.05

### **2019eko uztailaren 24eko UDALBATZA OSOKOAREN BATZARRE EZOHIKOA**

ORMAIZTEGIIn, 2019eko uztailaren 24ean, arratsaldeko 19:00etan, Udaletxe honetako Bilkura Areto Nagusian Udalbatza Osoa biltzen da, Dunixi MURUA ANTIA alkateorde jaunaren lehendakaritzapean BATZARRE ezohikoa lehen deialdian egiteko asmoz, behar den forman eta aldez aurretik Udalkide bakoitzari igorria izan zaien AZTERGAI ZERRENDAREN arabera.

Batzarreratzen dira ondoko Udalkide Jaun/Andreok:

- Juan LOBATO AMADO Jna.
- Ione USABIAGA ARRATIBEL And.
- M. Lierni YURRITA ARREGI And.
- Asier ETXARRI ESKISABEL Jna.
- Aitor OKARIZ ELORTZA Jna.

Idazkaria:

- Begoña Antxustegi Bengoetxea And.

Ez dira agertzen, bere ezagertzea desenkusatuta:

- Jon ENRIQUE GALARZA Jna.

Ez dira agertzen, bere ezagertzea desenkusatu gabe:

- Agustin GILABERT MOLIST Jna.
- Garazi HACH EMBAREK IRIZAR And.

Segidan Lehendakariak hasiera ematen dio bilerari, Udala osatzen duten eta dagozkion kideetatik gehienak bertaratu direnez eta, ondorioz, gutxiengo quorum-a gainditzen denez.

...//...

E-19/08-01



## *Ormaiztegui Udala*

Udal1-batzarre  
E-19.08.06

...//...

### **LEHENENGO PUNTUA:** **2018 EKITALDIKO KONTU OROKORRAREN BEHIN BETIKO ONARPENA, HALA BADAGOKIO.**

Alkateordeak, Dunixi Murua Antia jaunak, itaundu du ea inork gaiaren inguruan ezer esatekorik baduen.

Idazkariak gogorarazi du maiatzeko osoko bilkura ohikoan eman zitzaiola hasierako onarpena ihazko Kontu Orokorrari; GAOn argitaratu ondoren, jendeaurreko erakustaldian ez dela alegaziorik ez bestelako ekarpenik ere izan, ogasuneko batzordearen azken saioan landu zela gaia eta, besterik ezean, behin betiko onespena eman ala ez bozkatzeari ekin behar zaiola.

Udalkideek ez dute galderarik edo oharrik aurkeztu.

Bozkatzeari ekin zaio eta ahobatez onartu da 2018ko ekitaldiko Kontu Orokorra.

### **BIGARREN PUNTUA:** **ALKATEAREN ESKUMENAK ESKORDETZEKO EBAZPENAREN BERRI EMATEA.**

Dunixi Murua alkateordeak azaldu du, 2019ko uztailaren 5eko R-19/255 Ebazpenaren bitartez, alkate jaunak bere eskumenak eskuordetzea erabaki duela.

Lehen eskuordetze-aldia uztailan izan dela eta Murua jaunaren beraren gain utzi dituela alkateak bete eskumenak adierazi du. Abuztuko hamabostaldian, aldiz, Agustín Gilabert, lehen alkateordeari, eskuordetuko zaizkiola eskumenak azaldu du Dunixi Muruak.

Ondoren, bilera gai zerrendari jarraitu zaio.

### **HIRUGARREN PUNTUA:** **ALKATEAREN DEDIKAZIOA ETA ORDAINSARIAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Dunixi Murua alkateordeak adierazi du bi mila lagunetik beherako udalerriek eskubidea dutela, udal zereginetarako, hautetsietako bat % 100ean liberatzeko edo liberazio hori gehiagoren artean partitzeko.

...//...

E-19/08-02



## *Ormaiztegui Udala*

Udal1-batzarre  
E-19.08.07

...//...

Ondoren, alkatearen proposamena azaldu du. Bertan, alkateak Udalari % 75eko dedikazioa eskaintzea proposatzen du, Legeak ezartzen dizkion ordainsariak jasota.

Asier Etxarri Eskasibel, Euskal Herria BILDUko zinegotziak, hitza hartu du eta proposatu datorren urteko aurrekontuan % 75ari dagokion gastua sartzea kontzeptu horretan eta ez % 100, dedikazioa % 75 izango bada.

Eztabaida amaituta, bozkatzeari ekin zaio. Aldeko botoak lau izan dira eta abstentzioak bi. Ez da aurkako botorik izan. Hortaz, alkatearen proposamena onartuta geratu da.

### **LAUGARREN PUNTUA:**

#### **IRAI ERROTA EREMUAREN GARAPENERAKO SPRILURREKIN SINATZEKO HIRIGINTZA HITZARMENAREN ETA KONTZERTAZIO BATZORDEAREN ESTATUTUEN HASIERAKO ONARPENA, HALA BADAGOKIO.**

Dunixi Murua udalkideak adierazi du hirigintza batzordean azterturiko gaia dela eta ea galderarik edo bestelakorik daukaten beste udalkideek gaiaren inguruan.

Beste zinegotziek ez dute ezer azaldu.

Idazkariak Irai Errotaren eremuak azken hamabost urteetan izan duen bilakaeraren laburpena egin du eta azpimarratu du 2004an eta 2011n izan zirela Sprilurrekin Hitzarmenak, gero gauzatu ez zirenak, eta orain hasierako onarpena eman ala ez erabakitzeke eztabaidagai dena haietan oinarritzen dela.

Ondoren, saioaren lehendakariak, Dunixi Murua jaunak, bozkatzeko aukera zabaldu du eta sei aldeko botorekin, ahobatez, eman zaio baiezkkoa.

### **BOSTGARREN PUNTUA:**

#### **ERREGUAK ETA GALDERAK**

Asier Etxarri zinegotziak galdetu du ea ezohiko bilkuran puntu hau jartzea zilegi den.

Idazkariak ez du aurkako arrazoirik ikusi.

Ez da bestelako ekarpenik izan.

...//...

E-19/08-03



## *Ormaiztegui Udala*

Udal1-batzarre  
E-19.08.08

...//...

Eta bilkuraren puntu honetara iritsita, 19:25 ordu direnean, bilkura amaitutzat eman da. Eta nik, Idazkari-Kontuhartzailea naizen aldetik, horren akta egin eta ziurtatzen dut bertan esandakoa leial jasotzen duela.

Ormaiztegin, 2019ko uztailaren 30ean.

Idazkaria-Kontuhartzailea

Sin.: Begoña Antxustegi Bengoetxea

...//...

E-19/08-04